

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Umbra Light Festival

Otsailaren amaieran, Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneak eta Zabalguneak Urban Light Festival izeneko jaialdia hartu zuten. Hemezortzi argi-instalaziok, proiektziok eta ikus-entzunezko ikuskizunek jendez bete zituzten kaleak eta plazak otsailaren 21etik 23ra bitartean, arratsaldez eta gauzez, hiria beste ikuspuntu batetik ezagutzeko. Harresia, Santa Maria plaza eta Katedralaren barrualdea ere protagonistak izan ziren ekimen berritzaile honetan, bere lehen edizioan arrakasta handia izan duena.



Harresian 'Wall Pattern Phenomena' proiektatu zen, Ezequiel Nobiliren proiektua. Horren bidez, ikusleak gonbidatzen zituen harresiaren sareta zeharkatzen zituzten koloreetan murgiltzera. Fenomenoak leku horretako argiak eta koloreak eraldatu zituen.

Bestalde, **Santa Maria plazan**, 'Dot' izan zen ikusgai. Instalazioaren oinarria birziklatutako materialekin egindako tresna argitsua zen, goritasun-lanparek argizatzen zutena. Intentsitatearekin eta abiadurarekin jolasean, mugimendua eta emozioak lortu ziren puntu soilen bidez.

Eta **kriptako** ikuskizunak, Juan Gómez-Cornejoren eskutik, 'Las monedas de Caronte' izena zuen. Horren bitartez, ahoan txanpona duen hildakoaren istorioa kontatu zen, Caronteri egin beharreko ordainketa; Carontek hildakoen arimak garraiatzen zituen bere txalupan Hadesetik (azpimundutik). Itsaso horretatik abiatuta, argiaren eta musikaren laguntzarekin, ikusleek aukera izan zuten zenbait minutuz Santa Maria katedralako kripta ikuspuntu berri batetik ikusteko.



Argazkiak: UMBRA Light Festival - © Nacho Arias


GASTEIZEN JATORRIA 3D FORMATUAN

berriak
Triforio -tik



Santa Maria Katedralean hainbat urtez egin diren indusketek fruituak ematen jarraitzen dute. Hiriaren jatorriak argitu ondoren, tenpluaren lurrazpitik ateratako datu eta informazio ugariak abiapuntua dira proiektu bat garatzeko. Horren bitartez, teknologia berriak aplikatzen zaizkie ondareari eta ondarearen hedapenari, berreraikitze digitala egiteko, hiru dimentsiotan.

‘Gasteizen jatorriak’ izenburupean, Santa Maria Katedralaren Fundazioak Gasteizen jatorria 3Dn berreraikitzen duen ikus-entzunezkoa aurkeztu du; zehazki, IX. eta XII. mendeen artekoa kontatzen du. Diziplina anitzeko bi talderekin elkarlanean, EHUkoa eta Burgosko Unibertsitatekoa, Gasteiz herrixka primitiboa aurkezten du bost minututan, benetako itxurari leial.



Garai hartan, IX. mendean, gure hiria burdinaren ekoizpen-zentro garrantzitsua zen, eta, orduko estandarretarako, bene-benetako potentzia zen industria- nahiz merkataritza-mailan; izan ere, soroetarako lanabesak behar zituen eskualdeko merkaturia hornitzeko industria metalurgikoa zeukan.

Baskoien eremuko hirigune nagusien artean nola finkatu zen jakin ahal da, irudien eta narrazioaren bidez. Eta hiriaren garapena hain handia izan zen, ezen 1000. urte inguruan Goiuriko gaur egungo hiri-erretikulua sortu baitzen, zolatutako hiru kaleren inguruan antolatuta (kale horietan, bi alboetan zeuden lerrotatuta etxeak). Aldaketa erradikalenarekin amaitzen da ikus-entzunezkoa: XII. mendearen hasieran, esparru harresitu indartsu batek inguratu zuen Gasteiz, eta horrek are gehiago piztu zuen ekonomia. Arabako Diputazioaren finantzaketarekin egin da; Santa Maria katedralako kriptan proiektatuko da bisitan zehar, eta bost hizkuntza daude aukeran. Hemen ere badago ikusgai: www.catedralvitoria.eus



Familia-bisitak

Familiei zuzendutako hurrengo bisitak martxoaren 9an, 17:45ean, eta apirilaren 13an, 18:00etan, izango dira euskaraz; martxoaren 16an eta 18an, 17:00etan, eta apirilaren 6an, 18:00etan, berriz, gaztelaniaz.

Bisitetan, txikien mintzairari egokitutako diskurtsoa erabiltzen da, arazorik gabe ulertu eta gozatu ahal izan dezaten ibilbide osoaz.

Jarrai gaitzakezu:



[facebook.com/AbiertoPorObras](https://www.facebook.com/AbiertoPorObras)



[@CatedralVitoria](https://twitter.com/CatedralVitoria)